



GORPUTZ ARROTZA – KORNEAKO ULTZERA

Zer da korneako ultzera?

Begiko kornean egindako zauri arin bat.

Zerk eragin dezake korneako ultzera?

Era askotako arrazoiengatik gerta daiteke: kizkur metalikoak, begian sartutako hondar xehea, soldaduran lan egitea, ukipen-lenteak erabiltzea ...

Zer jakin behar duzu korneako ultzerari buruz?

Kornea oso sentibera izaten da; beraz, korneako ultzerak min ematen du, nahiz eta ez den larria izaten: begia gorri jarri ohi da, eta "gorputz arrotzen bat" daukazula senti dezakezu.

Zer egin dezaket korneako beste ultzera bat ez izateko?.

Aurre egiteko modua begiak babestea izaten da, baldin eta soldaduran nahiz kizkur metalikoak edo beste partikula batzuk atera ditzaketen beste lanen batean ari bazara.

Zein tratamendu eman behar zaio korneako ultzerari?

Larrialdietako medikuak aztertu egingo zaitu, begian gorputz arrotzen bat ba ote duzun ikusteko, eta, hala bada, ondoren ateratzeko.

MEDIKUAREN AGINDUAK BETE BEHAR DITUZU, BEHAR

1. Tratamendua hasteko **tanta ziklopejikoak** (begi-niniak dilatatzeko balio dutenak, beginini handia) "tapoi gorriko potekoak" hartzeko agindu badizute, jakin behar duzu tratamendu horrek mina arindu eta beste arazo batzuk saihesten dituela, baina hartu ezazu kontuan, era berean, begi horretako **ikusmena lausotu** egingo zaizula. Pertsona batzuen kasuan ondorio honek zenbait egun iraun dezake, nahiz eta tantarik ez erabili. Gauza normala da, eta denbora-puska bat iragan ondoren, desegin egingo da.
Ikusmena lausoturik daukazun bitartean, ez duzu inolako ibilgailurik gidatu behar, ezta erreminta arriskutsurik erabili behar ere.
Beste mediku batengana bazoaz, tanta horiek erabiltzen dituzula esan behar diozu ahaztu gabe.
2. Batzuetan, baliteke agintzea **begian txaplata** jartzeko, argiak molestiarik eragiten badizu.
3. Korneako ultzera gehienak egun gutxi batzuetan sendatzen dira. Nolanahi ere, medikuak zuri bereziki emandako aginduak bete behar dituzu, prozesua behar bezala bideratzeko.
4. Ukipen-lenteak erabiltzen badituzu, tratamenduak dirauen bitartean ez dago erabiltzerik.

Informazio hori bideragarria da, jarraitu zure medikuaren aginduak